sanmarkos
Mankomunitatea

1452559

# SAN MARKO MANKOMUNITATEKO BATZARRAREN AKTA
# ACTA DE LA JUNTA DE LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCO

| AKTA ZK./*ACTA Nº* | 299/19 |
|---|---|
| LEKUA/ *LUGAR* | San Marko Mankomunitatea<br>Bilera aretoa<br>*Mancomunidad de San Marcos- Sala de Reuniones*<br>Vitoria-Gasteiz 10; Donostia-San Sebastian |

| EGUNA/ *DÍA* | ORDUA/ *HORA* | DEIALDIA/ *CONVOCATORIA* | Deialdi eguna/ *Fecha convocatoria* |
|---|---|---|---|
| 2019/11/15<br>*15/11/2019* | Hasiera/inicio: 9:30<br>Amaiera/final: 10:25 | Ez-ohikoa<br>*Extraordinaria* | 2019/11/11<br>*11/11/2019* |

**BERTARATUAK/ASISTENTES**

**1. KIDEAK/*VOCALES***

| UDALA/ *AYTO.* | KIDEA/ *VOCAL* | BERTARATUA/ *HA ASISTIDO* BAI/SI | EZ/NO | BOZKAK *VOTOS* |
|---|---|---|---|---|
| DONOSTIA SAN SEBASTIAN | Aitziber San Román Abete | X | | 23,5 |
| | Ernesto Gasco Gonzalo | X | | 23,5 |
| LASARTE-ORIA | David Mateos Jiménez *(Suplente de Agustin Valdivia Calvoren ordezkaria)* | X | | 6,5 |
| | Jon Antxordoki Rekondo | X | | 6,5 |
| PASAIA | Lore Suarez Linazasoro | X | | 6,5 |
| | Nahikari Otermin Soroa *(Suplente de Loreto Osa Oconen ordezkaria)* | X | | 6,5 |
| URNIETA | Jorge Segurado Iriondo | X | | 5,5 |
| | Mikel Pagola Tolosa | X | | 5,5 |
| LEZO | José Ángel Sánchez Gallardo | X | | 5,5 |
| | Miguel Angel Sánchez Antúnez | X | | 5,5 |
| ASTIGARRAGA | Xabier Urdangarin Lasa | X | | 5,0 |
| | Aitor Güemes Oyarbide | | X | -- |
| ERRENTERIA | Eneko del Amo Jiménez *(Suplente de Bernardo Lemos Tabernaren ordezkaria)* | X | | 8,5 |
| | Jose Manuel Ferradas Freijo | X | | 8,5 |
| HERNANI | Martin Aldaya Olasagasti | X | | 6,5 |
| | Mª Coro Echeverria Tolosa | | X | -- |
| OIARTZUN | Eneritz Arbelaiz Sarasti | X | | 5,5 |
| | Agustin Lekuona Irastorza | X | | 5,5 |
| USURBIL | Agurtzane Solaberrieta Mesa | | X | -- |
| | Joxe Mari Iribar Zapirain | X | | 5,5 |
| **2. BESTEAK/*OTROS*** | | **GUZTIRA *TOTAL*** | | **140,00** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| IDAZKARIA/ *SECRETARIO* | Xabier Loiola Aristi | Mankomunitateko Zuzendari-Kudeatzaile Ohia/ Ex director-gerente de la Mancomunidad. | Pedro Mª Ugartemendia Garro |
| KONTU-HARTZAILEA/ *INTERVENTOR* | Julian Ortiz Arruabarrena | TEKNIKARI JURIDIKOA/ *TÉCNICA JURÍDICA* | Mirari Arriola Irizar |

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

## GAI ZERRENDA

1. Aurreko bilerako akta onartzea.
2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.
3. 2020ko aurrekontuaren hasierako onarpena.
4. 2020ko Plantilla organikoa eta lanpostuen zerrendaren hasierako onarpena
5. "San Marko eta Aizmendiko zabortegietan laguntza teknikoko zerbitzua emateko" espedientea hastea (12/2019)
6. Zuzendari kudeatzailearen ordezkapenaren informazia.
7. Galde-eskeak.

## ORDEN DEL DIA

1. Aprobar el acta de la reunión anterior.
2. Dar cuenta de las resoluciones del Presidente.
3. Aprobación inicial Presupuesto 2020
4. Aprobación inicial de la plantilla orgánica y la relación de puestos de trabajo 2020.
5. Iniciar el expediente de "Servicio de asistencia técnica en los vertederos de San Marcos y Aizmendi" (12/2019)
6. Información sobre la sustitución del director-gerente.
7. Ruegos y preguntas.

**1. Aurreko bilerako akta onartzea.**

2019ko urriaren 11ko bileraren akta aho batez onartu da.

**1. Aprobación del acta de la reunión anterior.**

Se aprueba el acta de la sesión del 11 de octubre de 2019 por unanimidad.

**2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.**

Azken batzarraz geroztik lehendakariak onartutako ebazpenen berri eman zaio Batzarrari, 16 ebazpen (81/2019-95/2019).

**2. Dar cuenta de las resoluciones del Presidente.**

Se ha dado cuenta a la Junta de las resoluciones aprobadas por el Presidente desde la última Junta, 16 resoluciones (81/2019-95/2019).

**3. 2020ko aurrekontuaren hasierako onarpena**

Lehendakariak 2020. ekitaldirako Aurrekontu Proiektu Orokorra aurkeztu du.

Pedro Ugartemendiak, Zuzendari-kudeatzaile ohiak, azalpen gehigarriak eman ditu aurrekontuan isladatuta dauden diru-sarrerak, gastuak eta inbertsioen alderdi garrantzitsuenei buruz.

GHKri egiten zaizkion biohondakina eta errefuxako ekarpenei dagokionez, Lehendakariak aipatzen du 2020ko aurrekontuan aurten ordaindu diren tonako prezio berdinak isladatu direla, alegia, ez dira igoerarik aplikatu. Posiblea izan daiteke GHK-k urte amaieran bitarte beraien tarifak igotzea. Kasu horretan behar diren doikuntzak aplikatuko dira.

Aurrekari horietan oinarrituta ondorengo **AKORDIOA** bozkatzea proposatzen da.

**3. Aprobación inicial del Presupuesto para 2020**

El Presidente ha presentado el Proyecto de Presupuesto General para el ejercicio 2020.

A continuación, Pedro Ugartemendia, ex director-gerente de la Mancomunidad, ha explicado los aspectos más relevantes relativos a los ingresos, gastos e inversiones reflejados en el presupuesto.

En lo que respecta a las aportaciones realizadas a GHK por las fracciones de orgánico y rechazo, el Presidente menciona que en el presupuesto para 2020 se han reflejado los precios por tonelada que se han abonado este año, sin aplicar subida alguna. Existe la posibilidad de que GHK suba sus tarifas antes de final de año. En ese caso, se realizaran los ajustes pertinentes.

En base a estos antecedentes se propone votar el siguiente **ACUERDO:**



Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

**LEHENA:** 2020. ekitaldirako aurrekontu orokorra hasieran onartzea. 30.500.000 eurotan orekatu da eta behin betikoa izango da, erabaki berririk hartu behar izan gabe, jendaurrean jartzeko 15 egun balioduneko epean alegaziorik ez bada aurkezten.

**PRIMERO:** Aprobar inicialmente el presupuesto general para el ejercicio 2020. Se ha equilibrado en 30.500.000 euros y se aprobará definitivamente, sin necesidad de tomar nuevos acuerdos, si en el plazo de exposición pública de quince días hábiles no se presenta ninguna alegación.

**BIGARRENA:** Aurrekontua Gauzatzeko Araua onartzea. Hori onartutako aurrekontuaren proiektuan dago.

**SEGUNDO:** Aprobar la Norma de Ejecución Presupuestaria que figura en el proyecto de presupuesto aprobado.

**HIRUGARRENA:**Kontzeptu desberdinengatik Mankomunitateko udal kideek egin behar dituzten ekarpenak onartzea.

**TERCERO:** Aprobar las aportaciones a realizar por los Ayuntamientos miembros de la Mancomunidad en relación a diversos conceptos.

**LAUGARRENA:** Indarreko legeriari erreparatuz, izapide egokiak egitea.

**CUARTO:** Proceder a la tramitación oportuna atendiendo a la legislación vigente.

Eneritz Arbelaitzek, Oiartzungo ordezkariak, bi proposamen egiten ditu:

- alde batetik, aurreko urteetan proposatu duten bezala, udalen ekarpena aurrekontuaren likidazioaren arabera kitatu behar direla, horrela benetan erabili diren zerbitzu eta kostuen arabera likidatuz ekarpena. Horrela aholkatu ziola Euskal Kontu Epaitegiak Orioko Udalari eta horrela egiten dutela Debagoienako Mankomunitatean.

- bestetik, GHKren tarifekin lotuta, hausnarketa bat egitea. Beraien ustetan, GHKren tarifek ez dituzte hondakinen kudeaketarako printzipioak betetzen zentzu desberdinetan, ez dutelako hondakinen murrizketa sustatzen, zigortu egiten dutelako hondakina sortzen den tokian bertan tratatu, eta murriztu eta bereiztu ondo egiten duten udalei ez zaizkielako hobaririk aplikatzen, udalez udal ordez Mankomunitatearen guztirako ratioak erabiltzen dituztelako.

Eneritz Arbelaitz, representante del ayuntamiento de Oiartzun plantea dos propuestas:

- por un lado, tal y como se ha propuesto en años anteriores, la liquidación de la aportación de los ayuntamientos debe realizarse en función de la liquidación del presupuesto, liquidando la aportación en función de los servicios y costes efectivamente utilizados. Así lo aconsejó el Tribunal Vasco de Cuentas al Ayuntamiento de Orio y así lo hacen en la Mancomunidad del Alto Deba.

- por otro lado, hacer una reflexión en relación con las tarifas de GHK. Consideran que las tarifas de GHK no cumplen los principios de gestión de residuos en varios sentidos porque no fomentan la reducción de residuos, penalizan a los ayuntamientos que tratan el residuo en el lugar donde se genera y reducen y separan correctamente y porque utilizan ratios para toda la Mancomunidad en lugar de aplicarlos por ayuntamientos.

Hori dena kontuan hartuta, puntu honetan aurka bozkatuko dute.

Teniendo en cuenta lo expuesto, votarán en contra en este punto.

Lehendariak erantzun du aipatutako gai horiek erronka bat suposatzen dute. Bestetik, egia bada ere hausnarketa sakon bat egin beharko dela hainbat arlotan, momentuz proposatutako aurrekontua aurkezten da.

El Presidente responde que los temas mencionados son un reto a abordar. Por otro lado, si bien es cierto que es preciso hacer una reflexión profunda en diferentes ámbitos, de momento se propone el presupuesto que se ha presentado.



Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

Bozketa burututa, proposaturikoa onartu da, aldeko **95** botorekin eta kontrako **45** botorekin.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por **95** votos a favor y **45** en contra.

Aldeko 95 botoak Donostia, Lasarte-Oria Pasaia, Urnieta eta Lezoko ordezkarienak dira; kontrako 45 bozkak, berriz, Astigarraga, Errenteria, Oiartzun, Hernani eta Usurbilgo Udaleko ordezkarienak dira.

Los 95 votos favorables han sido emitidos por los representantes de los municipios de Donostia, Lasarte-Oria, Pasaia, Urnieta y Lezo, los 45 votos en contra corresponden a los representantes de los ayuntamientos de Astigarraga, Errenteria, Oiartzun, Hernani y Usurbil

**4. 2020ko Plantilla organikoa eta lanpostuen zerrendaren hasierako onarpena**

2019.10.11ko Batzarrak erabaki hau hartu zuen (gai-ordenaren 10. puntua): *"Mankomunitateko Batzarrak onarturiko 2017ko Lanpostuen Zerrendaren (LPZ) eta Plantila Organikoaren akordioaren aurka jarritako 825/2017 helegitearen epaia 136/2019 betetzea"*

**4. Aprobación inicial de la plantilla orgánica y la relación de puestos de trabajo 2020.**

La Junta adoptó el 10.11.2019 el siguiente acuerdo (punto 10. del orden del día): *"Ejecutar la sentencia 136/2019 dictada en el recurso 825/2017, interpuesto contra el acuerdo de la junta de la Mancomunidad de San Marcos por la que se aprueba la Plantilla Orgánica y la Relación de Puestos de Trabajo (RPT) 2017"*

Ondorioz, 2019.10.11ko Batzarrak harturiko erabakiaren baitan plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda eguneratu dira.

Por consiguiente, se han actualizado tanto la plantilla orgánica como la relación de puestos de trabajo respetando el acuerdo aprobado por la Junta el 10.11.2019.

Hori horrela, onartzea proposatzen den langile eta lanpostuen zerrenda espedientean eta batzarkideei banatutako dokumentazioan 2020rako.

En el expediente y documentación facilitada a los miembros de la Junta se adjunta la plantilla y la relación de puestos de trabajo que se propone aprobar para el 2020.

Lehendakariak azaltzen du plantilaren egoera zein den bajan zegoen langilea urrian lanean hasi zenetik.

El Presidente explica cuál es la situación tras la incorporación en octubre de la trabajadora que estaba de baja.

Aurrekari horietan oinarrituta ondorengo **AKORDIOA** bozkatzea proposatzen da.

En base a estos antecedentes se propone votar el siguiente **ACUERDO:**

**LEHENA:** 2020ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda behin behinekoz onartzea.

**PRIMERA:** Aprobar inicialmente la plantilla orgánica y la relación de puestos de trabajo 2020.

**BIGARRENA:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**SEGUNDA:** Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**HIRUGARRENA:** Erabakia behin betikoa izango da, erabaki berririk hartu behar izan gabe, jendaurrean jartzeko 15 egun baliodunek o epean alegaziorik ez bada aurkezten.

**TERCERA:** Se aprobará definitivamente, sin necesidad de tomar nuevos acuerdos, si en el plazo de exposición pública de quince días hábiles no se presenta ninguna alegación.

Bozketa burututa, proposaturikoa aho batez onartu da.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

**5. "San Marko eta Aizmendiko zabortegietan laguntza teknikoko zerbitzua**

**5. Iniciar el expediente de "Servicio de asistencia técnica en los vertederos de San**

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

**emateko" espedientea hastea (12/2019)**

Lehendakariak proposamena aurkeztu du eta bere onarpena eskatu.

Lehenik eta behin, *Ingurumeneko Sailburuordeak 2012ko uztailaren 31n emandako Ebazpenak,* hondakin geldo eta ez arriskutsuen San Markoko zabortegia *zigilatu, mantendu eta itxi ostean kontrolatzeko Ingurumen Baimen Bateratua ematen duenak,* F.8 atalean xedatzen du Ingurumena Zaintzeko Programa (IZP) osatzen duten analisi eta txosten ezberdin guztien emaitzak urtero bidali beharko zaizkiola Ingurumeneko Sailburuordetzari, hain zuzen ere martxoaren 30a baino lehen. Ingurumena Zaintzeko Planaren emaitzez gain, ingurumen gaietan espezializatutako entitate bereizi batek egindako txosten bat ere bidali beharko da

Halaber, Ingurumen Baimen Bateratuak G.4 puntuan xedatzen du zabortegiaren balantze hidrikoa egin beharko dela urtero (urte hidrologikoa kontuan hartuz). Horretarako, fluxu neurgailuetan erregistratutako lixibatu emariaren datuak erabiliko dira, baita datu meteorologikoak eta zabortegiaren azaleraren plano topografiko eguneratuak ere.

Azkenik, Ingurumen Baimen Bateratuak F.5 puntuan xedatzen du zabortegiaren topografiaren kontrola egin beharko dela urtero. Gaur egun, 42 kontrol mugarri daude zabortegiko isurketa azalerako aurrealdean eta eremu zentralean, hain zuzen ere azken isurketak egin diren eremuan, oraindik iragazgaizteke dagoenean. Hiru hilean behin, kontrol topografikoko kanpaina bat egingo da, zabortegian egondako mugimendu eta jalkitzeak egonkortzen diren egiaztatzeko, era horretan, eremu hori behin betiko zigilatzen hasi ahal izateko.

*Ingurumeneko Sailburuordeak 2015eko uztailaren 1ean emandako Ebazpenak,* hondakin geldo eta ez arriskutsuen Aizmendiko zabortegirako *Ingurumen Baimen Bateratua aldatu eta indarrean jartzen duenak,* G.9 atalean xedatzen du Ingurumena Zaintzeko Programa osatzen duten analisi eta txosten ezberdin guztien emaitzak urtero bidali beharko zaizkiola Ingurumeneko Sailburuordetzari, hain zuzen ere martxoaren 30a baino lehen. Ingurumena Zaintzeko Planaren emaitzez gain, ingurumen gaietan

**Marcos y Aizmendi" (12/2019)**

El Presidente presena la propuesta y solicita su aprobación.

En primer lugar, la *Resolución de 31 de julio de 2012 de la Viceconsejera de Medio Ambiente por la que se concede Autorización Ambiental Integrada para la actividad de sellado, mantenimiento y control post-clausura del* vertedero de residuos no peligrosos de San Marcos establece en su apartado F.8. que todos los resultados de los diferentes análisis e informes que constituyen el Programa de Vigilancia Ambiental (PVA) deberán remitirse con periodicidad anual, siempre antes del 30 de marzo, a la Viceconsejería de Medio Ambiente, debiéndose acompañar los resultados del Plan de Vigilancia Ambiental de un Informe realizado por una entidad independiente y especializada en temas ambientales.

De igual modo, la AAI establece en su punto F.4. la AAI estipula que anualmente se deberá realizar un balance hídrico del vertedero para el cual se emplearán los datos de caudal de los lixiviados registrados en los caudalímetros, así como los datos meteorológicos y planos topográficos actualizados de la superficie del vertedero.

Finalmente, en su punto F.5. la AAI estipula que anualmente deberá realizarse un control de la topografía del vertedero. Actualmente, existen 42 hitos de control en la zona central y frontal del área de vertido, zona de vertidos más reciente y que aún está pendiente de impermeabilizar. Con periodicidad trimestral se realizará una campaña de control topográfico al objeto de determinar si los desplazamientos y los asentamientos sufridos en el vertedero tienden a estabilizarse para el inicio de la instalación del sellado definitivo.

En segundo lugar, la *Resolución de 1 de julio de 2015 del Viceconsejero de Medio Ambiente por la que se modifica y se hace efectiva la Autorización Ambiental Integrada (AAI) para* el vertedero de residuos inertes y no peligrosos de Aizmendi establece en su apartado G.9. que todos los resultados de los diferentes análisis e informes que constituyen el Programa de Vigilancia Ambiental (PVA) deberán remitirse con periodicidad anual, siempre antes del 30 de marzo, a la Viceconsejería de Medio Ambiente,

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

espezializatutako entitate bereizi batek egindako txosten bat ere bidali beharko da.

debiéndose acompañar los resultados del Plan de Vigilancia Ambiental de un Informe realizado por una entidad independiente y especializada en temas ambientales.

Era berean, Ingurumen Baimen Bateratua onartzen duen ebazpenak, G.3 puntuan xedatzen du, urtero, zabortegiaren betetze maila erakusten duen plano topografiko bat egin beharko dela, faktore hauek behar bezala zehaztuta: zabortegiaren mugak, zabortegiaren eremu zigilatua, mugarrien kontrola eta azken urtean non ezarri diren hondakinak. Halaber, zabortegiaren azaleran aldaketak zein eremuetan eta datetan egin diren zehaztu beharko da.

De igual modo, la AAI establece en su punto G.3. que anualmente deberá realizarse un plano topográfico actualizado de llenado del vertedero con delimitación de los límites del vertedero, la zona de vertedero sellada, control de hitos y la zona del vertedero donde se han depositado residuos el último año, indicando sus superficies y fechas en las que se han realizado modificaciones en la superficie del vertedero.

Azkenik, Ingurumen Baimen Bateratua onartzen duen Ebazpenak, G.5 puntuan xedatzen du urtero (horretarako urte hidrologikoa kontuan hartuz), zabortegiaren balantze hidrikoa egin beharko dela. Horretarako, fluxu neurgailuetan erregistratutako lixibatu emariaren datuak erabiliko dira, baita datu meteorologikoak eta zabortegiaren azaleraren plano topografiko eguneratuak ere (eremu zigilatuak, isurpenak egin diren eremuak eta abar).

Finalmente, en su punto G.5 la AAI estipula que anualmente (entendiéndose como tal un año hidrológico) se deberá realizar un balance hídrico del vertedero para el cual se emplearán los datos de caudal de los lixiviados registrados en los caudalímetros, así como los datos meteorológicos y planos topográficos actualizados de la superficie del vertedero (zonas selladas, zonas de vertido, etc).

Beraz, lizitazio honen bidez, zerbitzu horiek bi sortatan kontratatu nahi dira; hau da, sorta bat zabortegi bakoitzeko:

Por consiguiente, por medio de esta licitación se pretende contratar estos servicios en dos lotes, uno por cada vertedero:

**Lote A:** San Markoko zabortegietan laguntza teknikoko zerbitzua
**Lote B:** Aizmendiko zabortegietan laguntza teknikoko zerbitzua

**Lote A:** Servicio de asistencia técnica en el vertedero de San Marcos
**Lote B:** Servicio de asistencia técnica en el vertedero de Aizmendi

Bi lan hauek 2020ko martxoaren 30a baino lehen bukatu beharko direla ikusirik, beharrezkoa izango da lizitazio hau presako prozeduragatik burutzea.
Bai Lehendakariak bai Pedro Ugartemendiak azalpen gehiagarriak emant dute puntu honen inguruan.

Viendo que ambos trabajos se deben entregar antes del 30 de marzo de 2020, cabe la necesidad de licitar por el procedimiento urgente esta licitación.
Tanto el Presidente como Pedro Ugartemendia han dado explicaciones adicionales sobre este punto.

Aurrekari horietan oinarrituta, zerbitzu teknikoek espediente berri bat hastea beharrezko eta egoki ikusi dute eta ondorengo **AKORDIOA** proposatzen da:

En consecuencia de lo anterior, los servicios técnicos de la mancomunidad han visto necesario y adecuado iniciar otro expediente, por lo que se propone el siguiente **ACUERDO:**

**LEHENA:** Prozedura hau hasteko urgentzia deklaratzea.

**PRIMERO:** Declarar la urgencia del presente procedimiento.

**BIGARRENA:** Prozedura ireki bidez, "San Marko eta Aizmendiko zabortegietan laguntza teknikoko zerbitzua emateko"kontratazio

**SEGUNDO:** Aprobar el expediente (12/2019), mediante procedimiento abierto, para la contratación del "Servicio de asistencia



Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

espedientea (12/2019) onartzea, sortetan banatuta.

**HIRUGARRENA:** Kontratuaren beharrezkotasun eta egokitasuna onartzea, baita kontratazioa arautzeko Baldintza Teknikoen Agiria eta Administrazio Baldintza Berezien Agiria ere.

**LAUGARRENA:** Esleipen prozedura hasi dadin xedatzea.

**BOSGARRENA:** 2019ko aurrekontuaren partiden kargura gastua onartzea.

**SEIGARRENA:** Lizitazioa Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta kontratugilearen profilean argitaratzea.

**ZAZPIGARRENA:** Mankomunitateko Lehendakariari ahalmena ematea kontratazio mahaiak harturiko proposamenaren baitan, kontratua esleitzeko eta sinatzeko, baita mahaiko kideak izendatzeko eta beharrezko administrazio tramiteak burutzeko ere.

Bozketa burututa, proposaturikoa aho batez onartu da.

**6. Zuzendari kudeatzailearen ordezkapenaren informazioa.**

Lehendakariak zuzendari kudeatzailearen ordezkapenaren inguruko informazioa eman du:

2019ko irailaren 25ean Pedro Mª Ugartemendia Garro, Mankomunitateko Zuzendari-kudeatzaileak, idatzi bat aurkeztu zuen, adieraziz, Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak irailaren 24ko saioan, Ekonomia Kudeaketaren Zuzendari posturako hautatu zuela. Era berean, Mankomunitateko karrerako funtzionario izanik, zerbitzu berezietarako egoerara pasatzeko eskaera egin du.

Donostiako udaleko erabaki hau 2019ko urriaren 07an argitaratu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lanpostuaren hasiera data azaroaren 04a ezarri da.

Horren baitan, Mankomunitateko Zuzenbide teknikariak urriaren 16an egindako txostenean azaldu du berau ordezkatzeko *EPELTB 10.1.b artikuluaren arabera, bitarteko funtzionarioak*

técnica en los vertederos de San Marcos y Aizmendi", dividido en lotes.

**TERCERO:** Aprobar la necesidad e idoneidad del contrato, los Pliegos de Prescripciones Técnicas así como el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que regirán el contrato.

**CUARTO:** Disponer el inicio del procedimiento de adjudicación.

**QUINTO:** Aprobar el gasto con cargo a las partidas del presupuesto de 2019.

**SEXTO:** Publicar la licitación en el Diario Oficial de la Unión Europea y en el perfil del contratante.

**SÉPTIMO:** Facultar al Presidente de la Mancomunidad para la adjudicación y firma del contrato, según la propuesta de la mesa de contratación, así como nombrar a los miembros de la mesa de contratación y efectuar los trámites administrativos que procedan.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

**6. Información sobre la sustitución del director-gerente.**

El Presidente informa sobre la sustitución del director-gerente.

El 25 de septiembre de 2019, el director gerente de la Mancomunidad de San Marcos, Pedro Mª Ugartemendia Garro, presentó un escrito indicando que la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Donostia lo ha elegido para ocupar el puesto de Director de Gestión Económica. Del mismo modo, al ser funcionario de carrera de la Mancomunidad, ha solicitado pasar a la situación de servicios especiales.

Esta resolución del Ayuntamiento de Donostia se ha publicado el 7 de octubre de 2019 en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y se ha establecido como fecha de inicio del puesto de trabajo el 4 de noviembre.

Asimismo, en el informe de 16 de octubre elaborado por la técnica jurídica de la Mancomunidad se indica que, para su sustitución, en virtud del artículo 10.1.b del

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

*direla urgentziak eta beharrak hala aginduta, berariaz justifikatutako arrazoiak direla-eta bitarteko funtzionario izendatutakoak karrerako funtzionarioei dagozkien zereginak egiteko, besteak beste, titularrak aldi baterako ordezteko denean.*

Real Decreto Legislativo 5/2015, *son funcionarios interinos los que, por razones expresamente justificadas de necesidad y urgencia, son nombrados como tales para el desempeño de funciones propias de funcionarios de carrera, cuando se produzca la sustitución transitoria de los titulares, entre otras circunstancias.*

Hori horrela, ikusirik daukan urgentzia, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeari (HAEE) Enpresa Administrazio ikasketekin erlazionaturiko poltsa eskatu zaio.

En ese sentido, vista la urgencia del caso, se ha solicitado a solicitado al Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP) la bolsa correspondiente a los estudios de Empresariales.

Horrez gain, postu honek dauzkan ardurak, funtzioak eta hondakinen gaiekiko espezializazioa dela eta, poltsatik datozenen artean egokiena hautatzeko gaitasun eta merituetan oinarrituriko prozedura egiteko oinarriak zehaztea eskatu zaio egungo zuzendari-kudeatzaileari.

Además, en vista de las responsabilidades, las funciones y la especialización en residuos selectivos que conlleva este puesto, se ha solicitado al actual director gerente que edite unas bases, para seleccionar al candidato más adecuado entre las personas procedentes de la bolsa, se lleve a cabo un procedimiento basado en capacidad y mérito.

Lehendakariaren 89/2019 Ebazpenaren bidez onartu da zuzendari-kudeatzailea hautatzeko prozedura aurreko zuzendari-kudeatzaileak egindako puntuaketa prozeduraren baitan.

Mediante Resolución 89/2019 de Presidencia se ha aprobado el proceso de selección de director/a gerente atendiendo al método de puntuación especificado por el anterior director gerente.

Bi fasetan banatuko da, merituen balorazio (80 puntu) eta elkarrizketa (20 puntu).

Este proceso de selección se ha dividido en dos fases: valoración de méritos (80 puntos) y entrevista (20 puntos).

Hautapen prozesua eta gauregun arte hautagaiei egindako elkarrizketen balorazioaren berri ematen zaie batzarkideei. Orain puntuazioaren araberako hurrenkera egin da eta hurrenkera horri jarraituz lanpostua eskaini eta epea emango zaio lehen sailkatuari.

Se informa a la Junta sobre el estado del proceso de selección y las valoraciones de entrevistas realizadas a los diferentes candidatos hasta la fecha. Ahora se ha ordenado por orden de puntuación y siguiendo este orden se ha ofertado el puesto a la primera clasificada, con un plazo para su respuesta.

**7. Galde-eskeak.**

Lehendakariak jakinarazten du San Markoko Zentroko kudeaketa lizitazioan inor ez dela aurkeztu. Bermatuta dago zerbitzuak ematen ari den enpresak zerbitzuak ematen jarraituko duela, irtenbide bat aurkitu arte.

**7. Ruegos y preguntas.**

El Presidente comunica que ninguna empresa se ha presentado en la licitación para la gestión del centro de San Marcos. Se ha confirmado que la empresa que da el servicio ahora siga dándolo hasta encontrar una solución.

Ondorioz, teknikoek aztertu beharko dute egoera.

En consecuencia, los técnicos tendrán que analizar la situación.

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

**Akta ixtea**

Lantzeko beste gairik izan ezean, LEHENDAKARITZAK saioa amaitutzat jo du buruan aipatutako eguneko 10:25 direnean.

Idazkari naizen aldetik, akta 1452521etik 1452529ra zenbakiak dituzten orri ofizialetan jaso eta berrespena ematen diot Lehendakariaren oniritziaz.

**Cierre de acta**

Sin más asuntos que tratar, la PRESIDENCIA levanta la Sesión, siendo las 10:25 expresado en el encabezamiento.

Levanto la presente acta en las hojas oficiales números 1452521 al 1452529 de todo lo cual doy fe, con el visto bueno del Presidente.

**EL SECRETARIO/IDAZKARIAK** **EL PRESIDENTE/ LEHENDAKARIAK**

sanmarko
Gasteiz, 10. 20018 Donostia
Tel 943 214 977

***Diligentzia:** Beste akta batzuk aurretik inprimitu direlako akta hau 1452559tik 1452567 zenbakira inprimitzen da.*

***Diligencia:** Puesto que se han impreso otras actas con anterioridad, este acta se imprime del nº1452559 al nº1452567.*

**EL SECRETARIO/IDAZKARIAK**

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco